

'MARCELO GANGOITI' SARIA

'BILBAO BALIOEN HIRIA' SARIAK

Saria daben hezkuntza baloreak

Somorostro Prestakuntza Ikastegiak 'Marcelo Gangoiti' saria emon deustso Versia empresari

Artxandape Ikastolak Bilboko Udalak emoten dauan saria jaso dau Eguzkimoreak taldearen proiektuagaitik



Somorostro Prestakuntza Ikastegiak, Marcelo Gangoiti sariaren bidez, enpresek zonaldearen suspertze ekonomikoaren alde egin dako apustua aitortzen dau. Inbertsio sorkuntzaren aldeko apustua, barrikunt-

za edo gizarte erantzukizuna dira epaimahaiak enpresa irabazleari buruz azpimarratzen dabezan alderdietako batzuk.



Bilboko Artxandape Ikastolak saria jaso dau «Bilbao Ba-

lioen Hiria Sariak» ekimenaren laugarren edizioan. Sari honeekin, alkarbitza hobe lortzen laguntzeko lana eta konpromisoa balioetsi eta publikoki aintzatesten dau Bilboko Udalak.

JARRAITU IRAKURTZEN

JARRAITU IRAKURTZEN

Ikasketa eta zerbitzua EBI sarean: gure ikasleak adinekoen egoitzetan


EBI sarean, 'Ikaskuntza eta Zerbitzua' programen bitartez, alkartasuna, enpatia edo errespetua bezalako baloreak ikusgarri egiten dira. Ikasleak pertsona bezala hazten dira, eta konpromisoa hartzen dabe, funtsezko balorea gizarte honetan.



JARRAITU IRAKURTZEN

Otxarkoaga ikastegiak antolatu dau XI. Hezkuntza Jardunaldia

Datorren maiatzaren 4an, Otxarkoaga Ikastegian, Lanbide Heziketa barriari, nazioartekotzeari eta 'ikaslearen magiari' buruzko hitzaldiak, Jorge Luengo irakaslearen eskutik. Hemen dozue zuen bertaratzea baieztatzeke esteka: [klik hemen](#).



Ukrainako ikasleak heldu dira EBI Ikastetxe eta ikastoletara

Markinako Berakruz Ikastola ume ukrainarrak jaso dauazan euskal ikastegietako bat da. Neska-mutilentzako erronka pertsonala handia da, baita hezitzailea be.

GEHIAGO IRAKURRI



Saria First Lego League lehiaketaren Estatuko finalean

San Fidel Ikastolako SanFiTek taldeak eta Begoñazpi Ikastolako Wheel Revoluion taldeak Estatuko First Lego League lehiaketan parte hartu dabe.

GEHIAGO IRAKURRI



Erreportajeak, alkarrizketak... EBI, erreferente hedabideetan

Elizbarrutiko Ikastetxeak, hezkuntza abangoardian. Azken asteotan, informazio-erreferentzia izan dira hedabideetan.

GEHIAGO IRAKURRI